



Astigarragako Udaltzaindia

udaltzaindia@astigarraga.eus

Espte zk / N° expte:	2018IKTH0001
Azalpena / Asunto:	Kotxe berria erosteko baldintza teknikoak.
Data / Fecha:	2018/01/18

ASTIGARRAGAKO UDALTZAINGOARI IBILGAILU GUZTIZ ELEKTRIKO 1 HORNITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. Xedea
2. Lizitazio-aurrekontua
3. Bermea
4. Hornitzeko epea
5. Ezaugarri teknikoak
6. 3544 GYF ibilgailuaren besterentzea
7. 3544 GYF Ibilgailuaren dokumentazioa
8. Esleitzeko prozedura
9. Esleitzeko irizpideak

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Udaltzaindiarentzako ibilgailu guztiz elektriko bat hornitzea da agiri honen xedea; ibilgailu hori kargatzeko puntu 1 hornitzea, instalatzea eta legezkatzea ere; eta gaur egun zerbitzura atxikita dagoen ibilgailua besterantzea.

2.- LIZITAZIO-AURREKONTUA

Gehieneko lizitazio-aurrekontua da: **24.795 € BEZa aparte.**

Ondorio guztietarako, lizitazioan parte hartzen duten enpresen PROPOSAMENETAN eskaintzaren prezioa ez ezik, egun zerbitzura atxikita dagoen ibilgailuaren besterantzeagatik ordainduko den zenbatekoa eta zerga guztiak ere sartuta daudela ulertuko da –Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) izan ezik–, baita ordaindu beharreko gastu guztiak ere.



Astigarragako Udaltzaingoa

udaltzaingoa@astigarraga.eus

3.- BERMEA

Kontratu honetan berme hauek eskatzen dira:

- Ibilgailuaren kasuan, gutxienez 5 urte, kilometro kopuruaren mugarik gabe.
- Bateriak, ere, 5 urteko bermea edukiko du, eta 5. urtean 200 kilometroko autonomia mantendu beharko du karga batekin.
- Kargatzeko puntuaren kasuan, gutxienez 2 urte.

4.- HORNITZEKO EPEA

Ibilgailu elektrikoa entregatzeko 40 eguneko epea izango da, kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

Autoa udaltzaingoaren agente lehenak adierazten duen lekuan emango da, eta karga puntua, berriz, udal zerbitzu teknikoek adierazitako lekuan instalatuko da.

5.- EZAUGARRI TEKNIKOAK

a.- IBILGAILUA

Ibilgailu kopurua: 1.

Mota eta ezaugarriak

Turismoa, 5 plazarekin eta 5 aterekin.
Trakzioa guztiz elektrikoa.
Txuria
Beira tintatuak

Motorra eta prestazioak:

Motor elektrikoa.
Gutxieneko potentzia, 80 Kw edo gehiago (109CV).

Bateriaren ezaugarriak

Bateriak saretik kargatzeko kable estandarra.
Kontsumo elektrikoa (kWh/100km).
Autonomia km-tan, 200 km edo gehiago.
Bateria kargatzeko puntua indarreko araudiaren arabera.



Astigarragako Udaltzaingoa

udaltzaingoa@astigarraga.eus

Ibilgailuaren beste ezaugarri batzuk:

krokadurako bola
Neguko gurpilak
Airbag
Klimatizadorea
bluetooth

b.- BATERIAK BIRKARGATZEKO PUNTUA

Barrualderako birkargatzeko gune baten hornidura, instalazioa eta legeztatzea (ibilgailu elektrikoak birkargatzeko sistemarekin bateragarria). Astigarragako Udaleko zerbitzu teknikoek zehazten duten lekuan jarriko da gune hori.

c.- LAGUNTZA TEKNIKOA ETA ORDEZKO PIEZEN HORNIDURA

Enpresa esleipendunak urtebetez emango ditu nahitaez beharrezkoak diren ordezko piezak ibilgailu elektrikorako, eskatu eta 48 orduko aldi gehienez.

Era berean, bermealdian, ibilgailu elektrikoak eta birkargatzeko guneak osatutako sistemaren edozein elementu konpondu beharko du enpresa esleipendunak, 48 orduko gehieneko aldi. Matxura autoarena bada, ordezko ibilgailu bat ere utzi beharko du, matxuratutakoa konpontzen den bitartean.

6.- 3544 GYF IBILGAILUAREN BESTERENTZEA

Udaltzaingoaren ibilgailu-flota berritze aldera, ezinbestekoa da 3544 GYF ibilgailua besterentzea, eta hori horrela, lizitatuzaileek beren gain hartu beharko dute ibilgailu hori.

Ibilgailua, zerbitzuak instalatutako elementuak (komunikazioetarako ekipoa, klaxonak...) desmuntatutakoan, esleipendunaren eskueran izango da.


Ibilgailuari baja eman ahalko zaio trafiko sailean desegintzagatik, edo lehiaketaren esleipendunaren izenean transferituko da. Esleipendunaren kontura izango dira bi kasuetan ere eragindako gastuak.



Astigarragako Udaltzaingoa

udaltzaingoa@astigarraga.eus

7.- 3544 GYF IBILGAILUAREN DOKUMENTAZIOA



INSPECCIONES TÉCNICAS PERIÓDICAS		MATRÍCULA:	
Fecha de inspección: 13 NOV. 2015	(146)	Fecha de inspección:	
Valedera hasta/por: <i>[Signature]</i>	(Sello)	Valedera hasta/por:	
Nº informe inspección: <i>[Red stamp: EMPTA / RESULTADO KONTRAKOAI DESFAVORABLE]</i>	(Sello)	Nº informe inspección: Firma,	(Sello)
Fecha de inspección: 11 DIC. 2015	(146)	Fecha de inspección:	
Valedera hasta/por: 11 DIC. 2017	(Sello)	Valedera hasta/por:	
Nº informe inspección: Firma,	(Sello)	Nº informe inspección: Firma,	(Sello)
Fecha de inspección:	(Sello)	Fecha de inspección:	
Valedera hasta/por:		Valedera hasta/por:	
Nº informe inspección: Firma,	(Sello)	Nº informe inspección: Firma,	(Sello)
Fecha de inspección:	(Sello)	Fecha de inspección:	
Valedera hasta/por:		Valedera hasta/por:	
Nº informe inspección: Firma,	(Sello)	Nº informe inspección: Firma,	(Sello)



Astigarragako Udaltzaindia

udaltzaindia@astigarraga.eus

Nº SERIE 37267643 B		MATRICULA	
SUBARU SUBARU ESPAÑA, S.A. Cl. Felipe IV nº 7 28014, Madrid			
Número de identificación: IF1SHHLZ3AG159730		Nº CERTIFICADO 16246	
Clasificación del vehículo: 1000 TURISMO		Codigo ITV: FUJA6FA7	
Marca: SUBARU Tipo: SH Variante: SHD/OKO Denominación comercial: FORESTER Tara (kg): 1540 MTMA/MMA (Kg): 2050 MTMA/MMA 1ª E (kg): 1080 MTMA/MMA 2ª E (kg): 1095 MTMA/MMA 3ª E (kg): MTMA/MMA 4ª E (kg): MMR S/F, c/F (kg): 750/2000 Neumáticos: 215/65R16(98V) Nº de asientos: 5 Volumen de bodega:	Clase: Altura total (mm): 1675 Anchura total (mm): 1780 Via anterior/posterior (mm): 1530/1530 Longitud total (mm): 4560 Voladizo posterior (mm): 1005 Distancia eje 1º/2º (mm): 2615 Distancia eje 2º/3º (mm): Distancia eje 3º/4º (mm): Distancia 5ª rueda (di. mm): Motor: Marca: FUJI HEAVY Tipo: (D) EE20 Nº Cilindros/Cilindrada (cm³): 4/1998 Potencia fiscal/real (C.V./KW): 13,3/108		
Opciones incluidas en la homologación de tipo: Placa matricula delantera 340x110 mm			
Observaciones: Vehículo importado con DUA Núm: 10E300081130785251 de fecha 23/06/10, 0811-0 Aduana de BARCELONA CO2: 167			
Por las piezas de origen extranjero incorporadas a este vehículo se han satisfecho los correspondientes derechos de Aduanas.			
El abajo firmante, legalmente autorizado por FUJI HEAVY INDUSTRIES LTD certifica que el vehículo carrozado cuyas características se reseñan es completamente conforme con el tipo homologado con la contraseña e13*2001/116*0982 así como con las opciones arriba incluidas.			
MADRID, 24 de JUNIO de 2010			
Firma		SUBARU ESPAÑA, S.A.	
Sociedad inscrita: Registro Mercantil de Madrid Tomo 4571 Folio 178 Secc. 8 Hoja M-76294		R.P.	
Reformas autorizadas: 11/12/2015 Instala enganche marca: SUBARU Tipo: 38.8183 Cont.Hmg: e4*3675*00 Para remolques hasta: 750/2.000 kg. r/cel			

EJEMPLAR PARA EL USUARIO

EN FAVOR DE SUBARU ESPAÑA S.A. S. DE RESPONSABILIDAD INDUSTRIAL, TURISMO Y COMERCIO



Astigarragako Udaltzaingoa

udaltzaingoa@astigarraga.eus

8.- ESLEIPEN-PROZEDURA

Eskumeneko kontratazio-organoaren eskutik esleituko da kontratua, lehiaketa publikoaren bitartez.

9.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Hornidura esleitzeko, irizpide ekonomikoaz gain ibilgailuaren hobekuntza teknikoak hartuko dira kontuan, baita ingurumenarekin zerikusia duten hobekuntzak eta udaltzaingoaren zerbitzua hobetuko lituzkeenak ere.

Beraz, lizitazioan puntuazioa banatzeko honako baremo hau erabiliko da.

KONTZEPTUA	PUNTUAK
Proposamen ekonomikoa	70
Hobekuntzak ingurumen-portaeran	10
Hobekuntza teknikoak	10
Udaltzaingoaren zerbitzua hobetzeko extrak	10

Enpresa esleipendunak hornidura hobetu ahal izango du kostu berarekin, baldintza berekin eta eskainitakoaren marka eta modelo bereko ibilgailu batekin.